

**Erreportaia** Regina eta Anjelua espetxeei begira  
**Kalekantalian** Maite eta Ajadu, bere seme etiopiarra

# Bitpilean

SORALUZKO  
HAMABOSTEKARIA  
144. alea, 2006ko  
azaroaren 24an




**GAIKO LARRIAK ETA  
KONDENA BETEA DUTEN PRESOK  
KALERA ORAIN!**

**aski da**



*Fresaketa teknologia*



**SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: [www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)



MAKINA BEREZIAK  
LERRA AUTOMATIKOAK  
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.  
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



NEREA ISASTI

## Guztion ardura

Ia egunero jakiten dugu kasu berri bati buruz komunikabideen bitartez. Eta ez da harritzekoa, zeren zifrak izugarriak dira. Datu bakar bat aipatzearen, 18 segundo bakoitzeko munduko tokiren batetan emakume batek tratatu txarrak jasaten ditu. Agian, hau irakurri bitartean, gure etxetik gertu emakumeren bat edo beste tratatu txarren biktima izaten ari da. Airean galdera bat: gaur egun antzinan baino kasu gehiago dago edo kopurua antzekoa da baina komunikabideei esker kasu hauek nabariak egiten dira?

Zer berri esan daiteke gai honi buruz? Dena esanda dago.

Azaroaren 25ean Emakumeekiko Bortizkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da eta nahiz eta jakina izan ospakizun honen arrazoia zein den azaldu beharra dago. Hara, 1981eko uztaillean Latinoamerikako Lehen Topaketa Feminista ospatu zen Bogotan eta han izendatu zuten egun hau. Orduetik urterero ospatzen da. Egundau aukeratzeko arrazoia 1960 urtean bilatu behar da, Dominikar Errepublikan, non Trujillo

dikatadorearen aginduz, Mirabal ahizpa aktibistak akabatu zituzten.

Erraz hitz egiten da tratatu txarrei buruz. Baina, zer dira tratatu txarrak? Definizio honen barne tratatu txar fisikoa, tratatu txar ekonomikoa, tratatu txar soziala, abusu sexuala, eraso sexuala, jazarpen sexuala eta tratatu txar psikologikoa daude.

Egoera honen aurrean behin betirako neurriak hartu behar dira. Heziketa, prebentzioa, sentsibilizazioa, azpiegitura berri eta eraginkorra, Osasuna eta auzi bidezko eta lege bidezko neurri eraginkorrak.

Eta gure gizartean (Europa mailan) emakumearen egoera zaila bada, zer esanik ez garapen bidean dauden lurraldeetako emakumeena!!!

Emakumeekiko bortizkeria ez da desagertuko, emakumeok gizarte honetan pairatzen dugun diskriminazioarekin amaitzen ez dugun bitartean. Egundau hori heldu arte, azaroaren 25ean urtero egun triste hau ospatu beharko dugu. Erantzuna ematea guztion ardura da!

**18 SEGUNDO  
BAKOITZEKO  
MUNDUKO TOKIREN  
BATEAN EMAKUME  
BATEK TRATU  
TXARRAK JASATEN  
DITU.**



### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze  
Telefona 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Arianne Unamuno

**Erredaktoreak:** Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla

**Publizitatea:** Ane Larreategi

**Logotipoa:** Jon Gabilondo

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Diseinua eta maketazioa:** KOH diseinu grafikoa

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



### ERREPORTAIA

Regina Maiztegi eta Anjelua Murgoitio soraluzetarrak herrian daude, 3 eta 5 urte espetxean izan ostean. Beren bizipenez galdetu diegu.

## Zorion agurrak



### Ivan Ayora

Azaroan 30ian

11 urte

#### Zorionak potxolo!

Bizkorregi hazten zabiz,e?  
Etxekuen partez



### Miren Rivero

Azaroan 20xan

urtebete

#### Zorionak eta muxu bat!

Guraso eta ahizpa Mirenek



### Jaione Mendia

Azaroan 19xan

5 urte

#### Zorionak eta muxu haundi bat

Soraluzeko familixian partez



### Edu Pombar

Abenduan 3an

29 urte

#### Zorionak majete!

Pil-kidiok maite zaittugu!



### Iokin Arrillaga

Azaroan 22xan

13 urte

#### Zorionak!

Familixian partez.



### Aurkene Lopez de Calle

Abenduan 8xan

3 urte

**Zorionak eta muxu handi bat** etxeko eta lagunaren partez



### Gino Romero Solórzano

Azaroan 18xan

16 urte

#### Zorionak mutiko!

Familixian partetik.



### Koldo Crespo

Azaroan 24an

6 urte

**Gure oñatiarrari Zorionak!**  
Etxekoen partetik



### Ibon Crespo

Azaroan 12xan

4 urte

**Zorionak!** gure oñatiarrari!  
etxekuen partetik



### David Palacin Zarobe

Azaroan 16xan

urtebete

**Zorionak** familiaren partez!  
Asko maite zaitugu.

## Gutunak

### ZORIONAK XERO XIETE!

XERO XIETE taldeari ZORIONAK!! Azoka eguneko programa irakurri nuen, zein izango zen talde hori pentsatu nuen. Pena pixkat banuen, aurreko urtean Imuntzo eta Belokirekin hain ongi pasatu eta gero. Eta Xero Xiete erromeria talderik ez nuen ezagutzen. Hau sorpresa arratsaldeko 19:30etan frontoira igo eta Xero Xiete zeintzuk ziren ikustean. Herriko jendea zen eta kanpoko edozein talde bestekoa. Joan zen urteko giroa edo hobeia izan zen. Jendea alai abesten, eta zelako giro ederra dantzan! Gutxitan ikusten da horrelako giroa Soraluzen eta uste dut horrelako arrakasta ikusita pena merezi duela musikariak joten jarrai dezaten. Frontoiko giroak gaueko 23:00ak arte iraun zuen eta oraindik jendeak abesti gehiago jotzeko eskatzen zuen. Gau guztian zehar ere giro polita egon zen herrian. Zorionak.

Itziar Burunza

### ESKERRIK ASKO, SORALUZE

Gaztañerreko Azokan Misioetako taldiak eta Kaleko Eskola Elkartiak postua jarri genduan Udaletxepian, Guatemala "Escuela de la Calle"ri laguntza emoteko. Oso pozik gare lortutakuakin: 2.941 euro batu genduzen. Hurrengo astian donazino bat eta katekesiko umiek juntautako dirua be jaso doguz. Danera, 3.171 euro. Diru honekin lehenengo hezkuntza bukatu daben ikasleri ikasketak bekak eskainiko dotseguz, jarraitu deizen ikasten, eta ikaslien familixerri janari-bekak emango dotseguz, muturreko pobrezia horri aurre egiten laguntzeko. Eskerrak benetan zuen bihotzetan Guatemalako umien zatitxo bat ipini dozuen danori, eta bereziki umieri, halako jarrera ederra izatiarren.

Soraluzeko Misio Taldea  
eta Kaleko Eskola Elkarteak



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
Buletinen harpidetza !!!

## Ekintzak

### • Bielorrusiako haurren harrera

Bielorrusiako Haurren Harrerarako Elkarteak (ACOBI).

Udan 6 eta 18 urte bitarteko Belorrusiako haurrak etxean hartzeko  
**Iraupena:** 2007-06-24tik 2007-08-31ra bitartean

**Epea:** 2007-05-31

**Tel.:** 677 556183

### • Txernobilgo haurren harrera

Bolunta; Txernobil Elkarteak.

6 eta 17 urte bitartekoak 147 haur hartzeko familiak behar dira.

**Iraupena:** 2007-06-24tik 2007-08-31ra bitartean.

**Epea:** 2006-12-31

**Tel.:** 94 4161511 / 94 4153802

**Tel.:** 670 419078

## Lana

### • Lanpostuak Arrasateko udalean

- + Liburuzain bat
- + erizaintzako diplomatu bat
- + liburuzain laguntzaile bat
- + delineaizaile bat
- + bi udaltzain
- + arotz bat

Arrasateko Udala.

Arrasateko Udalean langileak kontratatuzko oposizio-lehiaketa.

**Epea:** 2006-12-04

**Tfnoa:** 943 790900

[www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org)

## OHARRAK

### PELOTA ENTRENAMENDUAK HASI DIRA

Astelehen eta asteazkenetan iluntziko 18:45etik 19:45era pelotan jokatzeko entrenamenduak izango dira Kiroldegiko frontoian. Adin mugarik gabe, edonor animatzen dute pelotan jokatzera.

**Kzguna** abenduan martitzenero zabalik, 9:00etatik 13:00etara.

## Jaiotakoak

- ARITZ RUIZ ORKAIZTEGI
- FERDAUS HINA BEN SELLAM

## Zer irizten dotsazu?

Gaztañerreko Azokaren egunean Hegoamerikako kale saltzaileek ezin izan zituzten beren postuak ipini. Urtero Plaza Barrixan egoten dira, eta festa bereziaren parte ere izan ohi dira. Baina aurten ez dute lekurik izan.

# Ze pentzatzan jatzu Hegoamerikar saltzailiak kalia postuak ipintzia?



**Mario Canales**

29 urte

**Tabernaria**

Ondo, zintzoki egitten dabe eta. Agintarixak leku egokixa ipini biharko leukie eta gauzak aurretik pentzau. Artisautzak emoten dotsa girua azokiari.



**Iruñe Varela**

16 urte

**Ikaslia**

Ondo. Asko gustatzen jataz eta noizian behin erosten dot. Gaizki pentzatzan jata da lekurik ez egittia, bitzta hobe bila etorri eta atiak ixten dotseguz.




**Marga Ibargoi**

48 urte

**Etxekoandria**

Ba ondo. Aurten ezin izan da ipini, tokirik ez zeuan eta. Baina penia izan da, nik beti erosten dot zeoze eta ikustia asko gustatzen jata.



**Iñaki Iñarra**

46 urte

**Harakria**

Danok dakagu eskubidia. Aurten ez da lekurik egon, ez postuentzat ezta ibiltzeko be. Espaloi gainian ipini dabenian, jentia pasatzeko traba izaten da.



**Imanol Rodriguez**

16 urte

**Ikaslia**

Ondo pentzatzan jata. Nik ez dot ondo ikusten postuak ipintzen ez lagatzia. Ez dabe trabarik egitten eta gus-tora ikusten dittut.



**Amaia Aldai**

48 urte

**Liburuzaina**

Neri gustatzen jata ikustia. Aurten leku faltia izan bada, erdigunian beste leku bat prestatu bihako zotsen.



**Karta enkarguz,  
jaunartzeak  
eta bataioak**

**EDURTZA Kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Telefonoa 75 24 09

**ARRANO**  
*tabernia*

“Giro euskalduna eta sanua”

**ETORRI ETA GOZATU**

 **etxera**  
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

# Gaztañerretan istiluak pankartak eta kale saltzaileen postuak kentzeagatik

Azoka egunean, Hegoamerikako saltzaileek ezin izan zituzten beren postuak ipini. Goizean goiz Udaltzaingoan baimena eskatu arren, ez zieten eman. Hala ere, postuak jartzan saiatu ziren Kalebarrenen eta beste toki batzuetan. Eguerdian, udaltzainek postu denak kendu eragin zizkieten. Udaltzainen esanetan, "Plaza Barrixan taloen postua jarri zen Plaza Zaharrean obretan dabiltzalako. Orduan, ez zegoen haientzat lekurik. Guk Udalaren aginduak bete ditugu". Herritarrek desadostasuna adierazi zieten udaltzainei.

Pankarten kontuarekin, Alkateak dio bakarra ke,ntzea agindu zuela, "istiluak eragozteko", Udalaren izena eta "narrutik ordainduko duzue" esaldi "mehatxugarria" jar-

tzen zituelako. Udaltzainek beste pankarta batzuk ere kendu zituzten, baserritarrek zoriontzen zituztenak tarteko. Herritar batzuek Udaletxeko balkoian pankarta ipini eta arrautzak jaurti zizkieten udaltzainei eta Udaletxeari.



**EUSKARA PLANAK ENPRESETAN.** Ardatza proiektua eta Danobat enpresaren euskara plana ezagutu zituzten udaletako arduradunek eta proiektuan parte hartzen ari diren enpresa eta erakundeek duela bi aste. Ardatza euskara industrian eta lan munduan txertatzeko sortutako programa da.

## Eibarrerako ur-trasbasearen obrek ibilgailu trafikoan aldaketak

Sagar-Errekan hasi dira Urkultik Eibarrera ura eramateko gure herrian egin behar dituzten obrak. Eibarretiko sarreratik SAPA hasierara itxita egongo da bi-dea astelehenetik aurrera. Orduan:

Gilako autobus geltokia estazio-ra aldatuko da; Mendaroko ospitalerakoa Errekalden, Estazioan eta Ezosi Bidean hartuko da; Ezosi Bidea eta Gabolats batzen dituen aldapak alderantzizko norantza izango du; Baltegiako garajeetara, Ezosi Bidetik buelta joan behar da.

## Poligonoan barandak eta farolak egoera txarrean

Herritar batzuek beren ardura adierazi digute, Mendiola industriadeko barandak ugartzen ari direla eta edozein egunetan norbait jausi daitekeela esanez. Farola batzuk etengabe piztu eta itzali egiten direla esan digute.

## Herri ikastetxeko irakasleek greba egin zuten

Azaroaren 21ean Herri Ikastetxean itxita egon zen, greba egin baitzuten irakasleek, lan baldintza hobek eskatzeko. Gipuzkoa mailan egin zuten, STEE-EILAS, ELA, LAB eta FETE-UGT deituta. Donostiako manifestaldi jendetsuan parte hartu zuten.



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE



# Gose grebak atxikimendu ugari jaso du

Bihar bukatuko dute Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatutako astebeteko gose greba. Gaixo larriak eta kondena betearen presoa kaleratzeko eskatzeko egiten dute. Eskualdean 5 dira 3/4ak edo kondena osoa beteta izan arren preso jarraitzen dutenak. Tartean Pedro Jose so-

raluzetarra. ELA, LAB eta EHNE sindikatuek, eskualdeko alderdi politiko batzuek eta herriko eragile sozialek atxikimendua eman diete grebalariei.

Eskualdeko manifestazioa egingo dute bihar, larunbata, eguerdiko 13:00etan.



## Jubilatuen Etxea herriarena da

Espainiako Lan eta Gizarte Ministerioak onartu du Itxaropena Jubilatuen Etxea Udalaren esku uztea. 140.530, 22 euroko balioa ezarri dio egoitzari. Oraindik eskriturak sina-

tu gabe badaude ere, Udalak fidantza bezala %25aren ordainketa egin du eta gainontzekoa 4 urtetan ordaindu beharko du.

## EHEk ezabaketak egin ditu herriko karteletan

Joan zen zapatuan, EHEk deituta, gazteleraz idatzita ageri ziren karteletan euskarazkoak ipintzeko aldarrikapenak egin zituzten. Kalejiran herrian zehar ibili ziren eta ondoren kontzentrazioa egin zuten Plaza Barrixan "Hizkuntza Eskubidiak errespetatu! Oposaketak euskaraz!" lelopean. Azaroaren 26an sinadura bilketarekin jarraituko dute, eguerdian Udaletxe parean.

## Autobusen ordutegia

Arazo informatikoetatik, ez zen ordutegia ondo azaldu aurreko alean. Hau da zuzena:

### Donostia - Soraluze

Astebarru	Zapatu	Domeka
06:15 19:00	08:00	08:00
08:00 21:00	12:00	12:00
13:00	16:00	16:00
15:00	21:00	20:00

### Soraluze - Donostia

Astebarru	Zapatu	Domeka
06:40 18:55	06:55	08:55
08:25 20:55	10:55	12:55
13:55	14:55	16:55
15:55	18:55	20:55



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21  
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
Faxa 943 75 22 95  
20590 Soraluze

Juan Mari  
Arraindegia

Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



SAN ANDRES  
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behe  
Tfnoa 943 75 16 46

Aurten lortu dute askatasuna  
Regina Maiztegi eta Anjelua  
Murgoitiok.

Reginak 2 urte eta erdi pasatu ditu  
Soto del Real, Brieva (Avila) eta  
Alcala Meco artean, kolaborazioa  
eta integrazioa egotzita.

Anjelua 5 urte egon da Alcala Meco  
(Madrid) eta Mansillako (Leon)  
gartzeletan, kolaborazioagatik  
zigortuta. Kondena bukatuta libre  
dago.

Regina behin behineko  
askatasunean, epaiketaren zai.



## Regina eta Anjelua, etxetik espetxera begira

**Ze egoeratan egon zarete espetxian?**

**A.:** Nik zelda konpartitzen neban. Mahai bakarra genkan, bat ikasten edo baldin bazeuan, ba, bestia ohian etzanda. Janarixa oso txarra zan, dana zikina egoten zan...Ekonomatuan nere erosketak eginda moldatu behar gorputza ondo mantentzeko. 5 dei 5 minutu-kuak astian.

**R.:** Espetxetik espetxera egoeria aldatu egitten da. Gure artian desberdintasunak sortzen dittue arazuak eragitteko. Baina ez da holarikorik sortzen.

**A.:** Espetxian bertan banatu egitten gaituzte alkar ez ikusteko. Bildurra dotse gure elkartasunari.

**R.:** Euskal Preso batuzekin espetxe berian egon naiz eta ez dittut sekula ikusi. Ahal daben dana egitten dabe gure artian ez elkartzeko. Espetxe barruan be dispertsia dago.

**Zein da zuen babesaren espetxe barruan?**

**R.:** Euskal Preso Politikuen kolektibuak emoten dosku babesaren. Gaizki zareian hor dare zurekin, eta zeu be berekin. Hori preso sozialek ez dake.

**A.:** elkartasunak momentu txarrak ahaztu ez baina barre egitten laguntzen dotsu. Jipoiak jasotzen

*Regina: "Euskal Preso Politikuen kolektibuak babesaren euki dogu beti. Hori preso sozialek ez dake."*

*Anjelua: "Espetxian bertan banatu egitten gaituzte alkar ez ikusteko. Bildurra dotse gure elkartasunari."*

zittuen kide batzuk barrez kontaktzen zoskuezen bizittakuak. Barruan danok batera gare.

**Espetxian zela emoten zinuten eguna?**

**R.:** Kidiakin patuan egoera politikuaz eta arazo pertsonalez berbetan. Zeldan, eskulanak egitten, irakurtzen...

**Bazeuan Euskal Presorik zuek egon zareten espetxietan?**

**A.:** Zorionez bai. Kidiak egotia, moralki eta psikologikoki laguntza haundia da. Lotura haundia sortzen da gure artian.





**Barruan ze borroka egin dozue?**

**A.:** Espetxekeo janari uko egin, zenbaketa apurketa, zikin greba...

**R.:** Txapea (zeldatik ez irtetzea), enkarteladak, egun bateko baraualdiak, idatziak ministroari ..

**Barruko borroka zelakua da?**

**A.:** gure dignitatiari eusteko batetik, eta kanpua pasatzen diran istripu, estraditazio etb.en aurrian be bai. Horrek santzinua dakar, egunetako isolamendu zigorrak.

**R.:** Salaketa borrokak beti dare. Eskubidien urraketak egoten dia eta horrek salatu egitten dittugu. Baina ezin dozu justua pentzatzen jatzuna egin, bestela, zigor-zelda batera eruango zaittue. Horrek inpotentzia haundixa sortzen dau. Min haundia eragitten dau.Euskal preso politikiuen kasuan, gehixago.

**Jasan izan dozue jipoi edo torturarik?**

**R.:** Komisaldegixan bai, eta espetxian nik ez baina nere kidiak bai.

**A.:** Nik ez.

**Osasun arluan ze egoeratan egon zarie?**

**R.:** Badare preso batzuk oso osasun

egoera larrixan, eta ez dittue atenditzen. Batzuk hil egin dira. Gainera, kontsulta medikuetara juateko Guardia Zibilekin edo Polizia Nazionalakin juan bihar zara, eta bidian kide asko jipoitu dittuzte. Nik bildur haundixa pasatzen neban.

**A.:** Nik espezialista batengana juateko 2 urte bihar izan nittuan. Beti aitzakixaren bat dago. Zeoze larrixa badakazu, hor geratzen zara.

**Ze beste eskubiden urraketa dago?**

**A.:** bakarrik egoteko eskaeria egin da, batzuetan lagatzen dotsue eta hurrengo beste 100 daren lekuan egotera bihartzen zaittue.

**R.:** Hizkuntza urraketa be badao. Euskaraz jarduteko eskubidia urratzen da. Telefonoz familixiakin erderaz egin biharra, adibidez.

**A.:** Ikasketekin be arazo haundixak dare. Euskaraz ezin da egin, UNEDen erdaraz bakarrik lagatzen do-tsue.

**R.:** Apuntiak ezin dira erabili, ordenagailurik bez...liburuekin bakarrik.

**Zelako kontrola dago kanpokaldia-kin dakazuen harremanetan?**

**R.:** Nere eta neretako gutun asko ez

dira heldu. Deixak grabatu egitten dittue, prentsa astebetara emoten dabe...Segurtasuneko arduradunan arabera.

**A.:** Gutuna kanpora bidaltzeko zabalik eruan bihar da eta kanpotik datozenak grapauta emoten dittue. Gutunak euskeraz badare, hilabetera, erderaz 9 egunera edo.

**Pil-pilean jaso izan dozue?**

**R.:** Brievan bai eta Mecon ez. Segurtasunekuak erabakitzen zeban.

**A.:** Nik ez dot arazorik euki. Batzuetan kontrolik pasatu gabe jaso neban.

**Zertarako balio dau espetxealdixak?**

**R.:** Espetxe politika pertsonen dignitatia suntsitzeko dago. Ez da gizarterako, zigortzeko eta mendekua hartzeko da.

**Askatutakuan ze sentidu zenduten?**

**A.:** Herrixan elkartasun haundixa sentitu dot. Hainbeste jende zure zai... flipatu egitten dozu. Nekagarrixa be bada, baina pozik.

**R.:** Espero ez neban babesa be jaso dot. Nik poza eta tristura. Jendia barruan lagatzia oso gogorra da. Hasieran ezin nittuan presuen kartelak begiratu.

**A.:** Guk badakigu zela daren barruan. Egunero arazoren bat eukiko dabela badakigu. Horregaittik jarraitzen dogu lanian.

**Zela dator etorkizuna?**

**R.:** Ni oso optimistia naiz beti. Alderdi politikuei presinua egin bihar dotsa gizartiak. Euskal Herrixari hitza emon eta onartu egin bihako jako. Blokeo hau apurtzeko eta bakia lortzeko modu bakarra kaleko jendian inplikazinua da. Gizartia izango da hori lortuko dabena, ez politikuak egindako lana.

**A.:**Oin da momentua zeoze lortzeko. Hemengo alderdixak batu egin bihar dira eta gero bultzada eman Espainiari mahai baten inguruan jartzeko. Danok batera konpondu bihar dogu.



*Regina: "kontsulta medikuetara juateko Guardia Zibilekin edo Polizia Nazionalakin juan bihar zara, eta bidian kide asko jipoitu dittuzte. Nik bildur haundixa pasatzen neban."*

Motzian	Regina	Angelua
Espetxea:	eskubide urraketa	zulua
Zelda:	bakardadea	hotza
Presoak:	maitasuna	elkertasuna
Bisitak:	alaitasuna	poza
Familia:	dana	onena
Askatasuna:	eskubidia	biharrezkua
Oroitzapen eder bat:	goizetako besarkadak	kidiak kaleratzia
Oihu bat:	espetxiak apurtu	askatasuna

**Behin behineko askatasuna:**  
*Regina: "Epaiketaren zain kalian nago. Ez daukat eskaera fiskalik, ez daukat eperik eta ezer. Presiopian gauzke. Urtiak egon neike egoera honetan. Astero epaitegira juan bihar naiz sinatze-  
 ra eta ezin naiz Espainiar estatutik irten."*

# Jubilatuetako karta jokoan irabazleak

## Trukean:

- 1go Victor Treviño - Celso Azkona
2. Benito Oregi - Eusebio Oregi

## Tutean:

- 1go Angel Palacin - Juan Maria Arei-tourtena
2. Eloy Pombar - Juan Nuevas

## Briskan:

- 1go Margarita Uriarte - Joaquina Mielgo
2. Maria Luisa Alberdi - Ciriaca Aran-zabal

## Musean:

- 1go Jose Fulgencio - Eutimio Fulgencio
2. Ramon Gomez - Juan Alonso



## 3D-ko argazkigintza proiektzioa

Kontrargik antolatuta, argazkigintza estereoskopikoaren (3D) proiektzio saio bi izango dira Jose Luis Feo argazkilariaren eskutik. Azaroaren 25ean Kiroldegian, 19:30etan eta 20:30etan.



## KULTUR GIDA

### AZAROAK 24

- "Fermalo e' possibile" bideo emanaldia. 22:30etan Plaza Barrixan
- "Ya saldrá" Antzerkia. 22:15etan Liburutegiko Hall-ean

### AZAROAK 26

- Ezoziko Ama Abesbatzaren kontzertua Murgiaiko Oro Santutegian.

### ABENDUAK 1

- REBELPHONES rock taldeak (Joanes Iñurrieta, Asier Iraeta, Iosu Arriola, Gaizka Azkarate eta Juan Fernandez) Ondarruko musika eskolan 19:00etan

## Gaztelupeko Hotsak, nobedadez beteta

Durangoko azokan izango da Gaztelupeko Hotsak disketxea. Aurtengo nobedadeen artean, disko berria orain gutxi atera duten taldeen lanak izango dituzte salgai: Bide Ertzean, Karidadeko Benta, Txuma Murugarren, Aterkings, Mikel Aranzabal, Mahaster River, Zafari Project, Jeronimo Martin, Iñaki Salvador noneto eta Magnus Mehl Quintet. Literatura arloan, "Bosgarren haria" sailean 3 liburu berri izango dituzte, Bap, Jotakie eta Rory gallagherri buruzkoak, Txuma Murugarrenen "Larrialdietarako irteera" eta argazki liburu bi ere bai.

**GURE ZERBITZUAK**

- Ortodontzia ikustezina
- Inplantak

## ELIZPE

Hortz Klinika

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

**ETA ORAIN... LAGUN ARO. PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)**

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

## MABE

### ILEAPAINDEGIA

**ESTETIKA**  
**SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

### Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

## Hnos. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Gaztañerretako kronika

## Gaztañerretako kronika



**L**ezarri lehenengo, Arizaga bigarren eta Arritxa hirugarren

**O** babarioak taldeak, Josune Jauregi eta Naiara Leturiondok, prestatu zituzten babarik goxoenak. Bigarren, Garro eta Aitor geratu ziren.



**P**ostua jarri zuten basarritar eta artisauek bazkaria izan zuten Armendin Lizaso eta Euzkitze bertsolariek lagunduta.



**J**ende asko hurbildu zen Guatemalaren alde goxokiak eta artisautza erostera.



**B**asarritarrez jaztearen ohiturak jarraitzen du oraindik



**L**an eta lan AEKkoak jendearen talo eskaerari lerantzun beharrez.



**K**laudia Oregi eta Bernardo Maiztegi basarritarrak omendu zituzten

# Karakatera igoeran errekorra hautsi dute

Aritz Kortabarria arrasatearrak 29 minutuan igo zen Elgoibartik Karakate gainera. Guztira 38 lagunek hartu zuten parte, tartean emakume bakarra. Soralezetarrak honela sailkatu ziren: Carlos de Cos 18. postuan (35:44), Gorka Tornos 28.ean (38:31) eta Mikel Elizburu 33.ean (40:40).

# Behobia- Donostia proban soraluzetarrak aurrean

4 soraluzetar izan ziren aurtengo Behobia-Donostia lasterketa jendetsuan. Aipatzekoa Ane Miren Etxaberen lana, emakumezko beteranoren artean 121. lekuan iritsi baitzen.

### Sailkapena:

1691	Jose Angel Gamazo	01:25:25
3145	Carlos Decos	01:30:30
5996	Joseba Exposito	01:39:36
7436	Ane Miren Etxabe	01:44:34



## OIER LARREATEGI TXAPELDUN BOLOTAN.

Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketan lehenengo saria eskuratu du Oier Larreategik jubenil mailan. Txapelketan, Soraluzetik, 8 gizezko parte hartu zuten helduen mailan eta bakarrak jubeniletan.

## EMAITZAK

### ESKU PILOTA

#### LASKURAIN

• Galarza V - Nalda III	16
Uriarte - Laskurain	18
• Capellan - Laskurain	17
Berasaluze IX - Eulate	22

#### AITOR ANTZOTEGI

• Loiola - Atxotegi	19
Behobide - Uzkudun	22
• Loiola - Atxotegi	22
Etxaniz - Arrilaga	11

### FUTBOLA

- Sora 3 - Urki 2 (erreg.)
- Aretxabaleta 0 - Sora 0 (jub.)
- Sora 0 - Elgoibar 7 (kad.)

## AGENDA

### FUTBOLA

**Zapatuan, , 15:30etan, Unben**  
• Gazteak - Sora (Erreg.)

**Zapatuan, 11:30etan, Ezozin**  
• Sora - Urki (Jub.)

**Zapatuan, 10:30etan, Aretxabaletan**  
• Almen - Sora (kad.)

### ESKU PILOTA

**Abenduak3, Matienan**  
• DV torneoa  
Gonzalez - Jauregi  
Gonzalo - Irurita

**PLACENCIA**  
KONTSUMO KOOPERATIVA

*Esku eskura! Tlf: 943 75 13 45*

**IRATXO**  
GOXOTEGIA

**EGUNKARIA**  
ETXERA ERAMATEN DIZUGU  
GEHIAGO ORDAINDU GABE

**ETXABURUETA, 4**  
20590 SORALUZE  
tlf: 943 75 13 20

**MENDATA** taberna

Pizzak ● Sukaldetik zure etxera!! ● Kazuelitak  
Bokadilloak ● ● Razioak

ostirala 08:30 - 22:30  
larunbata 08:30 - 22:30  
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

EGIKATUTAKO GANADU-HARAGIA  
CERTICAR  
CERTIFICACION DE PRODUCTOS ORGANICOS  
CARNE DE VACUNO CERTIFICADA

# Maite eta Ajadu Urtiaga

*Ajadu izenak lehenengoa, hasiera, esan nahi du. Etiopiatik Plazentziara ekarri du bere amak Urtiagatarrenera. 5 hilabeteko txikitxo honek afrikarren bizitasuna dauka, barre eta algaretan igartzen zaio. Maite eta bere familia zoratzen dauzka.*



**“Ama-  
bakarra izan  
arren,  
Etiopian ez  
dot  
adoptatzeko  
arazorik  
euki.”**

## **Zela hartu zenduan adopzinuan erabakixa?**

Internet bidez enteratu nintzan ama-bakarrak eta aitta-bakarrak be adoptatu zeikiela. Umiak eukitzia nahi neban eta bikoterik ez nekanez, bide egokixena zala pentsatu neban.

## **Zeinen bittartez egin dozu?**

Hasieran nere kontura jardun neban baina azkenian ECAI (Adopzio internazionalerako erakunde kolaboratzaileak) izeneko elkartiakin egin bihar izan neban. Herrialde batzuk bihartu egitten dabe, legalitatia ziurtatzeko.

## **Ze sentidu zenduan besuetan hartzian?**

Poz haundixa. Haurdunaldi psikologikua berdin-berdin pasatu dot, etapaz etapa. Baina zain egon biharra, momentu txarrrak...danak ahazten dira umia ikusitakuan eta besuetan hartutakuan. Sentikorrago egoten zara.

## **Zenbat denbora pasatu da eskaeria egittetik umia ekartzera?**

Oindala bi urte aurkeztu nittuan paperak Gipuzkuako Foru Aldundixan eta aurtengo abuztuan jua nintzan bere bila. Urtebetian be posible da.

## **Emakume soltera izatiarren zailtasunik izan dozu?**

Ez dot euki. Herrialdiak adopzi-

norako ipinitako baldintzen araber izaten da. Adibidez Txinan, ezkonduen 12 espedienteko, ama- edo aita-bakarren espediente bakarra sartzen da. Etiopian ostera, berdin da ezkondua izan edo bakarra izan.

## **Zegaittik afrikarra?**

Antzekotasuna sentitzen dotelako. Beste herrialde batzuekin ez, baina Etiopian kasuan imajinatzen dot nere burua bertara jua ten nere semiak jatorrixa ezagutu deixen. Gainera, legalitate aldetik seguruenetako bat da.

## **Zein egoeratan dare umiak Etiopian?**

Danetik dago. Ajadu zeguan umezurtz-etxia publikua zan eta bazekezen jangelak, ikasgelak, ziburuak... Etiopia izateko egoera onian zeguan. Baina pribatuen inguruan danetik entzun dot.

## **Badaukazu umian familixiari buruzko informaziorik?**

Ez dakit ezer, zein etniatakua dan bez. Abandonatu egin zebe, etxe baten onduan, ospitalletik gertu. Bigilatzen egoten dia, zeinek jasotzen daben. Ondo egongo dan ziurtasuna bilatzen dabe.

## **Zela moldatzen zara?**

Familixiak laguntzen dosta. Beren babesa ez baneka ez nintzan holako kontu baten sartuko.

## **Besterik ekartzeko asmorik?**

Bai. Garestixa dan arren, merezi dau. Adoptatzen daben jende gehixenak, oso gaizki urten ez bajako behintzat, errepikatu egitten dau. Eta nik be bai.

**ARMENDIA  
JATETxea**



**Sukaldaritza tradizionala**

Ezozu Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

**Lakuesta**

**Optika**



**Ikusmen arazozen frogak eta argibideak**

**Argazkiak errebelatzen ditugu**

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59

## Argazki zaharra



Iturria: Imañol Mendizabal.

## Txistularixen kalejirak

Herriko txistularixak kalejiran urtetzen dia urteko egun berezietan. Argazkixa Euskal Jaikua bada be, 1987-88 ingurukua, Santa Zeziliatan be urtero urtetzen zeben. Txistulari gaztiak eta nagusixak iluntzixan pasakallian urtetzen zian, herri guztian zihar Santa Zeziliarako espeziala zan pasakallia joten.

Ezkerretik eskumara:  
Igone mendizabal, Edurne Orbea, Virginia Aldazabal, Nora basauri eta Itziar Osa

## Lehiaketa

### Errege- Etxia...



**Aurreko  
aleko  
erantzuna**

Arrabal kalia zeguan lehenengua. Arma almazen moduan erabiltzen zan eta bertatik bilatzen zittuen danak Espainiako tropetarako. Inguruko herrixetan egindako arma danak ekartzen zittuen horrax.

## HERRIAREN HISTORIA

### GALDERA

Zein da herriko soziedaderik zaharrena?

- Alkazar
- Mahastia
- Allegrua

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

**[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)**

**Gogortuz**  
Fisioterapia zentroa  
Oier Oregi Uhamuno  
**943 75 00 22**  
Santa Ana kalea 7 Soralueze Gipuzkoa

**SARIA** →

Fisioterapia saio bat  
Gogortuz zentroan

**AURREKO ALEKO  
IRABAZLEA**  
Asun Goristidi

**SARIA**  
Fisioterapia saio bat  
Gogortuz zentroan



**KM**  
*Desing*

*Diseinua eta Sormena*

Poligono Amillage, n° 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K. Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13



# UgARAXO

2006ko azaroa

## Txipli txapla puuuuum!!!



## Kaixo lagunok:

3 urteko gelakoak gara.  
Udazkenean gaudenez,  
gaztainen garaian,  
eskolan ospakizun berezi  
bat egiten dugu.  
Olerkiak eta abestiak ikasi  
ondoren giro ederrean  
gaztain goxoak dastatzen  
ditugu.



"GAZTAINAK  
ERREKO  
DITUGU  
DANBOLIN  
ZAHARREAN  
GURE  
ESKOLAN,  
JEI!





## TXIKI - INKESTA

Gustatzen jatzu abestia? Zein da zure talde gustokuenena?  
Instrumenturik jotzen dozu?

### GORKA SUDUPE, 10 URTE

Batzutan abesten dot nik bakarrik. La muñeca de trapo kantua gustatzen jata eta La Oreja de Van Gogh taldia. Lehen txirulia jotzen neban baina oin ez.



### MAITE GARMENDIA, 10 URTE

Danetik abesten dot. Musika mota asko entzuten ditud, La Oreja de Van Gogh, adibidez. Musika Eskolan lehen txirulia jotzen neban eta gitarrria probatu neban baina ez jatan gustatu.



### IKER URIARTE, 10 URTE

Ez jata asko gustatzen abestia. Musikia bez larregi. Baina gehixen, ba, Shakira entzuten dot etxian. Oin biolina ikasten nabil, aitak erakusten dosta etxian.



### NORA LETURIONDO, 10 URTE

Bai, abestia gustatzen jata. "Rebelde" da nere talde gustokuenena eta "Fuego" bere kanturik onena. Telebistan be ikusten dot. Baterixia jotzen ikasi nahi neuke talde baten joteko.



### IBON BASALDUA, 10 URTE

Ez dot asko kantatzen. Gaztañerretan eta bai, baina bestela ez. Etxian "Txarro Loco" entzuten dot, bere kantuak onak diralako. Ez dot musika instrumenturik jotzen.




### NEREA IÑARRA, 10 URTE

Danetik entzuten dot, la oreja de Van Gogh, Alaitz eta Maider... Gitarria eta pande-rua jotzen ikasi neban Musika Eskolan eta oin trikitixakin nabil. Gero igual ezebez.



## DENBORAPASA



### LABERINTOIA

Aitor mahaixa ipintzen laguntzen dabil aittittari. Goilaria prest daka baina sardexka falta jako. Lagunduko dotsa-zu topatzen?



## SEGURAKO BARNETEGIA

Segurara urriak 23an joan ginen eta urriak 27an itzuli ginen Mendaroko 5. mailakoekin joan ginen, begirale hauekin egon ginen Txema, Agustin "Takolo", Ramon, Ana eta Igone. Abesti asko irakutsi ziguten.

Lehenengo egunean goizean logeletara joan ginen, mutilak binaka egin genuen lo eta neskak zortziko gela batean denak elkarrekin. Oso ondo zeuden, dutxak ere ikusi genituen oso txikiak ziren. Janaria ona zegoen baina dena ez zen gure gustokoa. Denpora librerako gauza asko genituen : palak, pelotak, saski baloiko baloiak, bilarra... Joku asko zeuden altxorraren bila, olimpiadak,... Bi taldetan banatuta film bat grabatu genuen eta ordenagailuz ipuin bat ere asmatu genuen.

Asteazkenean Ordiziako azokara joan ginen erosketak egitera, eta arratsaldean merendola egin genuen erositako gauzekin.

Azken egunean dantza egin genuen txaparron gelan. Gero bola jokoa egin genuen eta irabazi egin genuen eta geroago txaparroren gelan txaparroren kamisetak oparitu zizkiguten. Gero autobusez konfunditu ginen eta autobus hori Ermuara joan behar zen. 15min. geroago etorri zen gure autobusa, 16:15etan heldu ginen gure herrira.

# **X.** URTEURRENA

- **Tapiaren**  
**K**ontzertua
  - **Karpa** **ERR**aldoia
- **K**antu Bazkarixa
  - **X**iba um**E**entzat

**eta askoz**  
**gehiago...**



**PIL-PILEAN**  
EUSKARA ELKARTEA



**Tornilleria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**



**GOL industriak S.A.**  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Tel.: 34 943 75 21 00  
Fax: 34 943 75 17 12  
**20590 SORALUZE**

# **Ion Murgizu Pinturak**

**- Margoketa orokorrean -**

**Empapelatuak,**

**Estukoak**

**Fatxadak**

**Eskilarak eta patioak**

**Pintura industrialak**

**Telefonoa 943751324**  
**Mugikorra 652777030**  
**Ezoziko etorbidea 24 2 behea**  
**20590 Soraluze**